

Ikastolen Elkartek ez du jarraituko ‘Eskola Bikaina Denontzat’ prozesuan, honen bilakaera ikusita

Ikastolen Elkartek ez du aurrerantzean parte hartuko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako “Eskola Bikaina Denontzat” mahaian. Hala adierazi diegu Elkarteko ordezkariok Hezkuntza Saileko arduradunei. Izan ere, prozesuak ez du bermatu benetako eztabaida, eragileen parte hartze erreal eta duina, ezta segregazioari eta inklusioari buruzko erronkei serio heltzea ere. Erabakia arduraz hartu dugu, azken hilabeteetako dinamika eta Sailak hartutako neurriak aztertu ondoren.

Mahaiak ez du izaera parte-hartzailerik izan: ez dira baliabide, epe eta informazio egokiak eskaini, ez da eztabaida sakonik sustatu, eta ez da argitu egindako ekarpenen trataera. Erabakiak bozkatu edo berretsi gabe eman dira aurrerapausotzat, eta Hezkuntza Sailak aurrez hartutako neurriak ez dira zalantzan jarri. Ondorioz, prozesua erabili dela ondorioztatu dugu, Hezkuntza Sailak azken bi urteotan hartu dituen neurriak eta erabakiak balidatzeko, adostasunaren irudia emanez. Gure ustez, erronka serioegiak dira halako arintasunez eta azaleko lanketekin tratatzeko.

Erantzun partekatuak lantzeko unea da

Segregazioari eta inklusioari aurre egiteko, beharrezkoa da herri gisa erantzun partekatuak lantzea, ikuspegi integraletik eta dimentsio anitz kontuan hartuta. Hala nola, sozioekonomikoak, linguistikoak, lurraldekoak eta kulturalak. Horretarako, behetik gorako, garden eta parte-hartzaile den prozesu sendoa behar da, metodologia argiekin, epe egokiekin eta eragile guztien parte hartze errealarekin. Argazki azkarren ordeztasun, eztabaidaren sakontasuna eta kalitatea lehenetsi behar dira. Helburuak lidergo partekatu eta erantzunkide bat eraikitzea izan behar du, ez soilik irudi edo adierazpen bateratu bat argitaratzea.

Ikastolek, erronka hauei erantzuteko, lanean jarraituko dugu

Bitartean, ikastolek lanean jarraituko dugu gure balioetan oinarrituta garatzen ari garen neurrietan sakontzen: sarbide unibertsala bermatzen, euskalduntzen, inklusioan sakontzen eta komunitatearen elkartasuna antolatzen. Beka-sistema propioak, euskara indartzeko eta inklusioa lantzeko programak, eta zaugarritasun egoeran dauden haur eta gazteentzako neurri zehatzak garatzen jarraituko dugu, komunitatearen ekarpenaren, elkartasunaren eta antolakuntzaren bidez, euskal hezkuntza propio, bidezko eta kohesionatu baten alde.

Euskal Herriko Ikastolen Artezkaritza Kontseilua